



DANI BLANCO

**Iñaki Murua**

BERTSOLARIA ♦

## Anitzak

HAN HITZAK, HEMEN HITZAK... Ar hitzak, eme hitzak... Arren hitzak, emeen hitzak... Ar-eme hitzak harreman hitzak... eta ekintzak? Nola zebiltzank?

LEHEN GERTAERA: Aurtengo Kilometroetako kanta, hain aberats eta oriotarrentzat etxekotua, irakurri eta entzun dut, gustu handiz. Zorionak Olatz beste behin ere!

“Saria hausiya zekarkiñe marian sartuko omen ditun eokieran bi mila baixkine... Zeinek esan du hika egitea euskara konplikatzea, zailtasuna, swahili... dela?”

MUTILLOYAN AMARRATUTA, ZENBAT LEZAKE KONTA.. AITU, MUXU BOTA ABITZEA GUAZTIK, ERRIA TXIKOTA!!

Euskera soildu, inausi, kimatu... behar badugu, ez bedi izan herrian txertatutik. Ez diezaiogun Euskara Batuari deitu euskerak, eusk-eraz egiteko erak eskaini eta guk erabiltzen ditugulako. Eta gutxiago era hauetako bat hika edo noka denean. Elizak berorika jarri gintuen eta zezenketek beronika... heldu hika egiteko joera berpizteari. Hika ari dena euskeraz ari da, zuka ari denak ez du garantia hori bermatzen, beti.

Zenbat ahalegin eta txanpon... inbertitzen ala xahutzen dugu ez dakitenek euskara ikas dezaten? Eta erabil dezagun? Bizi dezagun?

BIGARREN GERTAERA: Asteburu honetan Lapurdiko Senperen Euskal Herriko Bertso Eskolen Eguna.

50/60 pertsona bildu eta hainbat ekintza burutu genuen. Duela hiruzpalau urte bederatzia Bertso Eskola genituen Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan eta egun 31 ditugu. Egun berean, Xilabako kanporaketa ere Senperen jokatzeko egokitu zen eta 300 pertsonatik gora entzuten, ideiaz blai oholtzaratu ziren

bertsulariek zer ekarpen egiten zuten bizitzera. Hainbesteko arrazoi oldea ondo tolestuta entzutea, a zer gozatua!

Goizaldera, gorputza eta mihia dantzan hasi zirenean, ilunak argi erakutsi zidan aisialdiak zenbateko pisua duen bertsoa, euskera... eta zeinek daki zenbat gai interesgarri geureganatzeko. Jolasean, era arin eta gustagarrian barneratutakoak zeinen ederki funtzionatzen duen: zuberotarrak gabiriarrenak bezala gasteiztarrak urretxuarren ziriak hausnartzen; Larrabetzukoak hendaiarrekin zirtoka eta

lesakarrak azkaindarrak xaxatzen... euskalkiek zuten beren berezko lekua harturik eta, esan bezala, han hitzak anitzak ziren... sekula baino dibertsoagoak!

Ez soildu zailtasuna, anitzasun interesantea badaiteke, aberastasun indargarria... alferrikakoa, aho-korapiloa, hitz hutsala, adaburu maskala... ez inausi. Matarrasa!

Gazte horien arteko harreman jariatua, giroa, konplizitatea, batera ikustea... mugagabeko euskeraren herriaren eraikitze oinarri interesanteena izango da. ■



*Ez soildu zailtasuna, anitzasun interesantea badaiteke, aberastasun indargarria*

DANI BLANCO



**Itxaro Borda**



IDAZLEA

## Hazkundeaz

EKONOMISTA ospetsuek aldare tepoetan argi ahulekiko ezkoak zutuntzen dituzte, naski mirakulu bat behar litekeelako petrolio txoke ezberdinen aitzineko hazkunde zoragarriaz, osasuntsuaz, axolagabeaz eta sanoaz berriz gozatzeko gisa. Gobernuak herritarrak sakrifikatuko lituzkete arraiki enpresa gosaioetako akzio-jabedunei sos emaitza gotorrak oparitzeko, ikusiz gainera Troikak larriki zafratu Grezia hartan jadanik hazkunde-ikarak sumatzen direla!

Dena putar eta dena ke zen orduko hazkunde, munduak eta energia iturriek mugagabeak ziruditen, industria kimikoak asmatu molekula zitalak oro irensteko,

txertatzeko eta gorotz hedatzeko prest geunden, baina gaurdanik fabrika zatarren tximiniak erori dira, portu-gune herdoilduetan langabetu lerroak biderka emendatzen doaz, ezinbesteko zikinaren, pozoia- ren eta kutsaduraren nostalgikoak bihurtzen ari garena.

Ezindua zakilari torraka debaldetan tematzen zaion eran obratzen dabilta jendalde etsituei egiaren errateko lotsa diren arduradun politikoak: otoitz, inprekazio eta mehatxu.

Hazkundera ez baita egundo itzuliko! ■

